

Gratu Amaierako Lana
Erizaintzako Gradua

**Ospitale eremuan zainketa aringarriak
eskaintzen dituzten erizainen komunikazio
gaitasunak trebatzeko osasun hezkuntza
programa**

Egilea:
Enara Arano Noriega
Zuzendaria:
Josune Zubeldia Etxeberria

ERANTZUKIZUN OHARRA (Erizaintzako Gradua, Donostia, UPV/EHU)

Dokumentu hau ikasle baten Gradu Amaierako Lanaren emaitza da, eta egilea da lanaren edukiaren arduraduna.

Beraz, lan akademiko honek epaimahaiak antzemandako akatsak izan ditzake, eta baliteke edizio honetan egileak zuzendu ez izana.

Lan hauek, prozesuarekin eta defentsarekin batera, 5-10 puntuko nota izango dute, eta, beraz, lanen kalitatea eta akatsen kopurua oso desberdinak dira lan batzuen eta besteen artean.

Euskal Herriko Unibertsitatea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gipuzkoako atala), Gradu Amaierako Lanen Epaimahaiko kideak eta irakasle tutorea ez dira Gradu Amaierako Lan honen azken edukiaren erantzule.

LABURPENA

Sarrera: Zainketa aringarriak jasotzeko irizpidea duen pertsona orok ez du aukera izaten unitate espezifikoean artatua izateko. Izan ere, gero eta ohikoago da zainketa aringarriak ospitale eremuan eman behar izatea. Horregatik, zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteekin lan egiten duten osasun profesional asko galduta sentitzen dira eta ez dute jakiten nola komunikatu egin beharreko zainketa edo jaso beharreko tratamendua, pazientearengan izango duen eraginaren beldur. Honela, pazientearen behar zein nahiak alde batera uzten dira, estresa, antsietatea eta konfiantza eza lortuz. Hori dela eta, erizainek komunikazio trebetasunak lortzeko osasun hezkuntza (OHEZ) programa bat egitea proposatzen da.

Helburua: Ospitale eremuko erizainek zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteen aurrean komunikazio gaitasunak trebatzeko osasun hezkuntza programa baten diseinua garatzea.

Metodologia: Programa garatzeko, bilaketa bibliografikoa egin da hainbat datu-baseetan Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCs), Medical Subject Headings (MeSH) eta hitz-gako ezberdinak erabiliz. Horrez gain, zenbait gida, liburu eta web-guneetatik lortu da informazioa.

Plangintza: Xede taldeak zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteen aurrean komunikazio ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak lortzeko helburu pedagogikoak ezarri dira, saio bakoitzean teknika ezberdinez osatutako hezkuntza jarduerak prestatuz. Aipatutako helburuak lortzeko, guztira lau saio proposatu dira. Horrez gain, programa aurrera eramateko baliabideak aztertu eta ebaluazio tresnak garatu dira.

Ekarpen pertsonala: Osasun hezkuntza programa honen lehen atalean zein izandako esperientzian ikusi da, tarteka zainketa aringarriak jasotzeko irizpidea duten pazienteak beste unitate ezberdinetara bideratzen direla, hauetan zainketa aringarriekiko formakuntza falta eta gabeziak sumatuz. Hori dela eta, batzuetan arlo humanizatua alde batera utzi eta teknikei garrantzia ematen zaie, bertan egoteaz ahaztuz. Beraz, gaur egungo beharrari aurre egiteko erizaintzako eredu bat erabili da, komunikatzeko trebetasunak garatu eta bizitzako azken etapa kalitatezko amaiera batean bilakatzeko.

Hitz gakoak: Zainketa aringarriak, erizaina, komunikazioa, osasun hezkuntza.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
1.1. INTENTSITATEA	3
1.2. GARRANTZIA	4
1.3. URRAKORTASUNA	6
1.4. ARRISKU FAKTOREAK	8
1.5. XEDE TALDEA	9
2. HELBURUAK	10
3. METODOLOGIA.....	10
4. PLANGINTZA.....	11
4.1. XEDE-TALDEAREN EZAUGARRIAK ETA HAUEN EZAGUTZAK, JARRERAK ETA GAITASUNEN IDENTIFIKAZIOA	11
4.2. HELBURUEN FORMULAZIOA	12
4.2.1. XEDE TALDEAK LORTU BEHARREKO HELBURU PEDAGOGIKOAK	12
4.3. JARDUEREN PROGRAMAZIOA	12
4.4. EBALUAZIOAREN PLANGINTZA	23
4.4.1. PROIEKTUAREN EMAITZEN EBALUAZIOA	23
4.4.2. PROIEKTUAREN PROZESUAREN EBALUAZIOA.....	24
4.4.3. PROIEKTUAREN EGITURA ETA BALIABIDEEN EBALUAZIOA	24
5. EKARPEN PERTSONALA	25
6. BIBLIOGRAFIA	26
7. ERANSKINAK	33
1.Eranskina.....	33
2.Eranskina.....	34
3.Eranskina.....	36
4.Eranskina.....	39
5.Eranskina.....	40
5.1. Eranskina	40
5.2. Eranskina	44
5.3. Eranskina	48
5.4. Eranskina	54
6.Eranskina.....	58
6.1. Eranskina	58
6.2. Eranskina	59
6.3. Eranskina	60

7.Eranskina.....	61
7.1. Eranskina	61
7.2. Eranskina	63
8.Eranskina.....	65
8.1. Eranskina	65
8.2. Eranskina	67

TAULEN AURKIBIDEA

1.Taula	13
2.Taula	14
3.Taula	16
4.Taula	19
5.Taula	21

SIGLEN ZERRENDA

- AECC: Asociación Española Contra el Cáncer.
- AEEP: Asociación Europea de Cuidados Paliativos.
- AEEPAL: Asociación Española de Enfermería en Cuidados Paliativos.
- BOE: Boletín Oficial del Estado.
- DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud.
- DUO: Donostiako Unibertsitate Ospitalea.
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ESI: Erakunde Sanitario Integratua.
- MeSH: Medical Subject Headings.
- OHEZ: Osasun Hezkuntza.
- OME: Osasun Mundu Erakundea.
- SECPAL: Sociedad Española de Cuidados Paliativos.

1. SARRERA

Zainketa aringarriak, diziplina arteko talde batek, paziente zein familiari gaixotasuna sendatzeko itxaropenik ez dagoenean ematen dien asistentzia integral, aktibo eta etengabeak dira. Osasun Mundu Erakundearen (OME) arabera, sufrimendua prebenitzen eta aritzen dute, min fisiko, psikosozial edo espiritualen eta beste arazo batzuen identifikazio, ebaluazio eta tratamendu zuzenaren bitartez (1). Zainketa aringarria “pallium” hitzetik dator zeinak “babesa” adierazi nahi duen eta zainketen ikuspuntu zabalari erreferentzia egiten dion (2).

Elisabeth Kübler Ross psikiatra zainketa aringarrien erreferentzetzat hartzen da. Lan ugari egin zituen pertsonen duintasuna lortzeko. Zientziak eta teknologiak aurrera egin duen bitartean, bizitzaren zentzua kasu batzuetan galdu dela esaten zuen. Izan ere, sendatzeko aukerarik ez zegoen kasuetan ere bizitza luzatzen zela ikusi zuen, ahalik eta tratamendu aurreratuen txertatzen saiatuz. Berak, ordea, harreman interpersonalei ematen zion garrantzia. Harreman hauetan pazientearen nahiak zeintzuk diren entzunez soilik kalitatezko zerbitzu bat ematen zela ohartu zen. Gainera, harremanetarako zein edozein arreta emateko komunikazioa ezinbestekoa dela zion (3).

Horrez gain, erizaintzak historian zehar profesioaren diziplina lortzeko, pazientearen zainketen kalitatea hobetzeko zein zainketei egitura emateko hainbat teoria sortzen ditu. Horien artean, zainketa aringarriekin Ruland eta Mooreren bizitzaren amaiera lasaiaren tarteko teoria aurkitzen da. Teoria honek hainbat oinarritzko kontzeptu deskribatzen ditu zeinak zainketa aringarrietan erizainak eman behar dituen zainketa espezifikoekin lotura zuzena duten (4,5,6,7).

Beraien teorian aipatzen diren kontzeptuak honako hauek dira: alde batetik, *min gabezia* dago. Mina, esperientzia sensorial edo emozional desatsegina da, lesio erreal edo potentzial batekin zerikusia izan dezakeena. Bestalde, *ongizatearen* beharra azpimarratzen dute zeinetan erlaxazio egoera batean lasai bizi daitekeen. Kasu hauetan, min fisikoak prebenitzeko, kontrolatzeko eta arintzeko tratamendu farmakologikoaz gain, atsedena, erlaxazioa eta gogobetetzea erraztea egongo lirarteke (4).

Duintasun eta errespetuari ere erreferentzia egiten diote, printzipio etikoetan oinarrituz pertsonari garrantzia ematen baitiote, hauen autonomia, nahi, behar, lehentasun zein babesa kontutan hartuz (3). Zainketa aringarrietan duintasuna 3 dimentsioz osatzen da:

bizitzen ari den etapari zentzua emateaz, profesionalen zein familiaren aldetik babesa edukitzeaz eta adaptatzeko gaitasunaz (4).

Beste alde batetik, *bakean egotea* egongo litzateke non lasaitasuna den nagusi, kezka eta beldurrak alde batera utziz. Hemen, babes emozionala ematen da konfiantza transmitituz eta pertsona seguru, baliagarri eta maitatua sentituz. Azkenik, *hurbiltasuna* aipatzen dute zeinetan beste pertsonengatik gertu sentiaraztea lortzen den. Honekin batera, familiaren parte-hartzea sustatzea edo erraztea egongo lirateke, galderak eta kezka argituz (4).

Oro har, edozein egoeraren berri izateko, aldaketen edo zalantzen inguruan hitz egiteko zein aurretik aipatutako zainketa espezifikoak aurrera eramateko komunikazioaren beharra azaltzen da. Komunikatzea, beste pertsona bati edo batzuei informazioa, sentimenduak, pentsamenduak edo ideiak helarazteari deritzo (8).

Zainketa aringarriak ematean komunikazio kanalari dagokionez, bi nagusitzen dira: *ahozko* espresioa non pertsonak hitzen, inflexioen eta erritmoaren arabera esan nahi duena adierazten duen eta *ez ahozkoa* zeinetan begien mugimenduak, aurpegiko espresioak eta gorputzaren lengoaiak parte hartzen duten. Watzlawick-ek dio beste pertsonaren ikus-eremuan egonez gero edo beste pertsonak arretra jarritz gero, beti komunikazio bat ematen dela. Komunikazioan adituak direnek, ez ahozkoa den komunikazioa %60-75 kasuetan erabiltzen dela uste dute, egiten edo sortzen diren keinuek paper handiagoa izaten dutela adieraziz (9,10).

Pertsonen arteko komunikazioan, partaideetan gailentzen den komunikazioak ere badu eragina. Komunikatzeko estiloen artean, ezaugarri psikologikoei erreparatuz, asertiboa, agresiboa, pasiboa eta manipulaztailea daude eta erlazio profesionalari dagokionez, berriz, teknikoa, paternalista, adiskidetasunezkoa eta laguntzailea aurkitzen dira (9).

Hala ere, komunikatzeko gaitasunak anitzak direla esan daiteke; izan ere, komunikazioak entzute aktiboa, enpatia, informazioaren maila ebaluatzea eta emozioak kudeatzen jakitea hartzen ditu barne. (8) Gainera, asertiboki jokatzeko jakin behar da; errespetuan oinarrituz epaitu edo erasotu gabe eta kritikak modu eraikitzailean esan eta jasotzeko gai izanez (9).

1.1. INTENTSITATEA

OMEren arabera, zahartzearen prozesua eta transmititzen ez diren gaixotasunen karga igotzen doazen heinean, zainketa aringarrien beharra ere handitzen doa. Urtero 40 milioi pertsonak behar dituzte zainketa mota hauek, baina hauetatik %14ak soilik jasotzen dituzte. Dena den, zainketa hauek hobetzeko oztopoak dira zainketa aringarriekiko osasun profesionalen kontzientzia eta ezagutza falta. Guzti honek, beharrezkoak ez diren ospitaleratzeak zein osasun zerbitzuen erabilera areagotzen ditu (1).

Sociedad Española de Cuidados Paliativos-ek (SECPAL) 2021.urtean, Espainian, 126.000 pertsona baino gehiagok zainketa aringarriak behar zituztela adierazi zuen, %40ak soilik jasotzen zituela adieraziz (11). Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, berriz, 2022. urtean 10.469 paziente aringarri zeudela ikusi zen (12).

Osasunaren Sistema Nazionalak esaten duenez, urtero hiltzen diren pertsonen artean %20-25ak zainketa aringarriak behar dituela estimatzen da eta datu hau hurrengo 10-15 urtetan bikoiztu daitekeela uste da. Zainketa aringarriak eskuratzeko, Espainia, Europa mailako 51.postutik 31.postuan aurkitzen da eta Asociación Española de Enfermería en Cuidados Paliativos (AECPAL) eta Erizaintzako Kontseilu Nagusiak diotenez, aurreko zifrak kontutan hartuz, zainketa hauekiko kontzientzia eta kultura falta nabaritzen dira. Zifra hauek ikusiz, azpimarratzen da zainketa hauek ematen dituzten osasun profesionalak ezin dituztela paziente guzti hauen beharrak asebate. Hortaz, formakuntza espezifikokoaren errekurtsio faltaz gain, osasun profesionalen falta ere sumatzen da (11).

Formakuntzari dagokionez, Revista Oficial de la Sociedad Española de Enfermería Oncológica-k ateratako ikerketa batean ikusi da zainketa aringarriak eskaintzen dituzten erizainen %58ak pazientearen zainketak kalitatezkoak izateko komunikazioaren formakuntza jasotzeko interesa dutela (13,14). Izan ere, teoriarik ikasitakoa errealitatean hurbiltzean martxan jartzea zailten da. Orain dela 10 urte baino gehiago formatutako erizainek ez dute komunikazioaren inguruan hezkuntza espezifikorik jaso erizaintza oraindik gradu bat kontsideratzen ez zelako eta beraz, heriotzaren aurrean nola jokatu jakiteko eta elkarriketetan emozioak nola kudeatu behar diren jakiteko zailtasunak nabarmentzen dira (15).

Mostoleseko Unibertsitate Ospitaleko zerbitzuetan lan egiten duten erizainekin egindako ikerketa batean ikusi da, lanean ibilitako urte guztietan zehar gutxienez behin zainketa

aringarriak behar zituen paziente batekin lan egin behar izan dutela eta guzti horietatik %20ak soilik jaso duela formakuntza espezifikoko bat. Espainiako osasun zentroetan lan egiten duten erizainekin egindako ikerketan, ordea, %86,1ak formakuntza jasota dute nahiz eta bertako %45,4ak oinarritzko formakuntza soilik izan. Hala ere, %68,2ak paziente hauen aurrean lan egiteko prest ez daudela eta formakuntza beharra sentitzen dutela diote. Ondorioz, nahiz eta zerbitzu guztietan hezkuntza hau jasotzeko beharra egon, ospitaleetan gailentzen dela ikusi da (13,14,16).

Espanian, zainketa aringarrien inguruko formakuntza falta ikusi da, baina are gehiago gerturatuz, Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) ere beharrezkoa ikusten dute zainketa aringarriak behar dituzten pazienteekin lan egiten duten osasun profesionalei komunikazioaren eta psiko-farmakoen zein emozionalki eman beharreko babesaren inguruan informazioa helaraztea. Kasu hauetan euskarri emozional eta psikologiko bat eskaintzea oinarritzkoena baita (12,17).

1.2. GARRANTZIA

Nahiz eta askotan paziente zein zaintzaileak babesa lortzeko erizainen bila jo, ikusi da batzuetan profesionalek bizitzako azken etapako gai pertsonalen inguruko elkarrizketak maneiatzeko zailtasunak dituztela eta deseroso sentitzen direla (15). Estatu Batuetako onkologiako zerbitzuan egindako ikerketa batean ikusi da zainketa aringarriak ematen dituzten erizainetan %69ak komunikazio arazo baten ondorioz heriotzaren gaia ekiditen duela, arazoa nola joratu ez dakitelako (18).

Espanian egindako ikerketa batean, berriz, ikusi da gaixotasunak zein pronostikoak izan dezakeen inpaktu edo eraginaz babesteko asmoz, gai batzuen inguruan hitz egitea saihesten dela, %64ko kasuetan isiltasunaren konspirazioari ateak irekiz. Horien %36,7a familiaren jarrera zein izango denaren beldurra izaten da arrazoi nagusi (19). Honek, Ruland eta Moorek bizitzaren amaiera lasaiaren teoriaraino aipatutako duintasun, errespetu, ongizate eta parte hartze kontzeptu nagusiei huts egiten die emandako zerbitzuaren kalitatean zein metaparadigmako arlo guztietan eraginez eta kezka, ezjakintasuna, frustrazioa eta karga emozionala nagusituz (4,20).

Beraz, komunikazio eraginkor ezak hainbat ondorio dakartza: pazientearen aldetik, ziurgabetasuna, bakardadea, antsietatea, ukapena, beldurra, gutxiago espresatzea, itxaropen faltsuak egitea eta ingresuak luzeagoak izateko arriskua ekarriko lituzke. (10,11,21). Izan ere, komunikazioa eraginkorra ez izatean, pazientearen nahiak ez dira guztiz lortzen, gaixotasuna sendatzeko aukera ez dagoenean ere ahalegin terapeutikoarekin jarraituz; honela, printzipio etiko zein pertsonaren duintasuna zapaltzera irits daiteke bizitzaren amaiera lasaiaren teoriako kontzeptu nagusiak oztopatuz (3,4,22,23).

Familiaren aldetik, antsietatea, nekea, itxaropen falta, insomnia, bakardadea, sufrimendua eta beldurra bezalako sentrazioak ager daitezke. Guzti hau, zainketa hauen karga mental zein fisiko, babes eza, komunikazio falta edota informazio desegokiagatik gertatu daiteke (21).

Erizainaren aldetik, berriz, estres laboral batera eta egoera ezberdinen aurrean tentsioa eta nekea sentitzeko arriskua handitzera eraman dezake profesionala. Kasu gehienetan, erizainak, elkarrizketak saihesten dituzte paziente zein familiaren emozioak kudeatzen ez dakizkitelako (11,23). Horrez gain, faktore desberdinek parte hartzen dute: bakoitzarengan konfiantza gutxi, denbora gutxi, beldurra eta nekea izateak (21).

Komunikazio arazoen ondorioz, erizainek burnout sindromea edo neke emozionala sentitzera iritsi daitezke. Zainketa aringarriak ematen dituzten erizainen artean burnout sindromea %24-30 kasuetan ematen da; hala ere, oso kritiko dauden pazienteekin lan egitean sindrome honen igoera %50era iritsi daiteke (24). Neke honen ondorioz, motibazioa galtzera eta porrotera eraman dezake egoera. Guzti honek, osasun esparruan zuzenki eragiten du, atentzioaren kalitatea jaitsiz, pazienteen atsekabea handituz eta akatsak areagotuz (25,26).

Komunikatzeko gaitasun ezak ez ezik, enpatiaren maneiu desegokiak eta emozioen zein inguruaren eraginak ere errukiaren ondoriozko nekea sortzeko arriskua handitzen dute, estresa eta interes eza areagotuz (26). Honek, erlazio interpertsonalak izateko zailtasunak handitzera, antsietatea, sumindura, buruko mina, kontzentratzeko zailtasunak sentitzera eta akatsak egiteko aukera gehiago izatera bideratzen du (25,26,27).

1.3. URRAKORTASUNA

Marko legislatiboak errealitate sozio-kulturalaren erreflexuak dira zeinetan banakoaren eskubideak eta aukerak zeintzuk diren azaltzen diren. (17)

Zainketa aringarrien kasuan, urteetan zehar hainbat lege argitaratu dira non 2002. urtetik aurrera baimen informatuaren, aurretiazko borondatearen, tratamenduari uko egitearen, familia akonpainamenduaren eta atentzio integralaren oinarritzko legeak onartu diren. Geroago, duintasunaren kontzeptuari garrantzia emateko legea onartu eta ohe indibiduala izateko eskubidea ere gailendu dira. Honela jada, duintasuna errespetatzeko eta Elisabeth Kübler Rossek esaten zuen moduan kalitatezkoa ez den bizitza luzatzen ez jarraitzeko, ahalegin terapeutikoaren mugaketa sortzen da, bizi euskarrirako tratamendua kenduz edo ez hasiz. Azkenik, 2021. urtean “Ley Orgánica 3/2021 de regulación de la eutanasia” onartu zen (17,23,28).

Zainketei oinarria finkatzeko, bioetikako 4 printzipio nagusi (malefizientzia eza, benefizientzia, autonomia eta justizia) egoteaz gain, teoria batean murgiltzeak ere zainketen planteamenduan lagun dezake (2). Horretarako, erizaintzak hainbat teoria aurkezten ditu. Alde batetik, Virginia Hendersonen teoria agertzen da zeinetan pertsonaren oinarritzko hamalau behar zehazten dituen, hamargarrena komunikatzearena izanik. Bestalde, zainketa aringarriak eskaintzeko, bizitza amaiera lasaiaren teoria aurkitzen da (4,29). Kolonbiako unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera, teoria hau zainketa aringarriak eskaintzen dituzten erizainen taldean erabiltzea gomendatzen da, paziente hauei babesa ematen eta beraien ongizatea bermatzen lagundu diezaiokelako. Horregatik, osasun hezkuntza baten bitartez, teoria zehatz hau marko kontzeptual zein formakuntza gida bezala integratzea gomendatzen da (30).

Erizaintza diagnostikoez ere zainketen plangintza bideratzen dute. Komunikazioaren beharra hainbat diagnostikotan nabarmentzen da; hala nola, [00052] gizarte elkarreraginaren narriaduran eta [00174] giza duintasunaren konpromisoa izateko arriskuan.(29)

Zainketa aringarriak behar dituen paziente zein osasun profesionalen arteko komunikazioa eraginkorra izateko marko, teoria zein diagnostikoez gain hainbat baliabide aurkezten dira:

Hezitzeko baliabideen artean, Innopal taldeak batez ere, zainketa aringarriak ematen dituzten profesionalen artean aurkitu diren zalantza eta zailtasunen inguruan aztertu eta kurtso bat sortu du zainketa hauen beharren detekzio goiztiarraren eta komunikazioan garrantzitsuak diren elementuen inguruan hitz egiteko. Horien artean, besteak beste, lehen arreta mailako zentroetako profesionalek, ospitaleko profesionalek eta larrialdietako profesionalek har dezakete parte (17).

Horrez gain, ezagutzak garatzeko baliabide gisa, Osakidetzak, Jakin sarean zainketa hauen inguruko informazioa eskaintzen du “Cuidados paliativos: 5 miradas”- en atalean. SECPAL, Asociación Española Contra el Cáncer (AECC), Asociación Europea de Cuidados Paliativos (AECOP) eta OME-k ere, zainketa aringarrien inguruko hainbat gida, protokolo zein liburu eskaintzen dituzte. (31,32).

Bestalde, maila pertsonalean hezitu eta hazteko, enpatian oinarritzea ezinbestekoa da. Enpatia, beste pertsonarekin identifikatzeko eta bere sentimenduak sentitzeko gaitasuna da (33). Gainera, enpatiak bakardadea eta nekea prebenitzen ditu, asebeteta sentitzeko aukera gehiago emanez. Hala ere, bestearen sentimenduak ulertzeko gaitasuna edukitzeko lehendabizi norberaren errukia landu behar da. Honetarako, mindfulness-a edo orainean egoteko gaitasuna lantzeak autoerrukian lagun dezake; izan ere, teknika honek egoerari aurre egiten eta erabaki onenak hartzen laguntzen du (34).

Errekurtso estrukturaleri begiraturaz, zainketa aringarriak hainbat eremutan eman daitezke. Euskadi mailan, lehen arreta mailako zentroak, ospitaleak, larrialdiak eta Osarean daude (17). Gipuzkoan ez da aurkitzen zainketa aringarriak jasotzeko estantzia ertain-luzea emateko ospitalerik, baina epe motzeko egonaldietarako, Donostiako Amarako Ospitalea dago eta batez ere, zainketa aringarriak behar dituzten paziente ez onkologikoei arreta emateko zein kanpo kontsultak egiteko balio du. Horrez gain, onkologiako zerbitzua, Gurutze Gorriko zentro soziosanitarioa, Matia fundazioa, etxez-etxeko arreta eta abar daude (7,35,36).

Guzti hau oinarritzat hartuz, behin trebetasuna lortzean, komunikazio eraginkorrak hainbat onura ekartzen ditu; hala nola, minaren maneiu egokia, erresilientzia hobetzea, bizitzari arrazoiak aurkituz esperantza mantentzea, tratamenduaren atxikimendua hobetzea, pazientearen bizitzaren kalitatea hobetzea eta paziente zein familiak beren emozioak espresatzea eta egoera ezberdinak onartzea sintomen maneiu eta doluaren

prozesua hobetuz (9,10,11,15,18). Gainera, komunikazio ireki eta asertiboa izateak, paziente eta profesionalaren arteko konfiantza handitzeaz gain, erizainen efikazia eta eraginkortasuna ere handitzen ditu (5,37). Honela, Ruland eta Moorek aipatutako kontzeptu nagusienak lortzen dira bizitza amaiera lasaia lortuz (4).

1.4. ARRISKU FAKTOREAK

Zainketa aringarriak behar dituzten pazienteekin lan egiten duten profesionalak komunikazio ez eraginkorra izatearen arrazoiak anitzak izan daitezke.

Alde batetik, komunikazioa trebatzeko formakuntza urria nabarmentzen da zeinak zerbitzuaren kalitate ona eragozten duen (26). Horregatik, garrantzitsua da zainketa hauek behar dituzten pazienteen aurrean erizainen rola zein den jakitea. Izan ere, kasu honetan trebetasun teknikoetan ez ezik, trebetasun sozialetan nola maneiatu jakin behar da (11,20).

Komunikatzeko dagoen trabaren ondorioz, erabaki txarrak hartzea areagotzen da, pazientearen segurtasunean zuzenki eraginez. Gainera, gaixotasunaren zein pronostikoaren inguruan honek izan dezakeen inpaktu edo eraginaz babesteko asmoz, informazio gutxiago ematen da isiltasunaren konspirazioari ateak irekiz. Gertakari hau arrazoi ezberdinengatik eman daiteke; besteak beste, sufrimendua saihesteko, paternalismoagatik, komunikazio zailtasunengatik, denbora faltagatik... (2,11,19,23).

Hala ere, kontutan izan behar da erizainen trebetasuna ez ezik, komunikatzerako garaian prozesua zaildu dezaketen hainbat faktorek hartzen dutela parte; hala nola, erizainen egoera pertsonalak, heriotzaren prozesu motak, emozioak, gaixotasunaren pronostikoak, familiaren dinamikak eta zaintzaileekin eduki beharreko elkarrizketak (15).

Horrez gain, estrukturari erreparatuz, Gipuzkoako zerbitzuetan lan karga handiena dagoela ikusi da. Izan ere, Osakidetzako adierazleak begiratzuz, Gipuzkoan 100.000 biztanleko ohe gehien dauden arren, estruktura aldetik erizain gutxiago daude. 2022ko datuak begiratzuz, Gipuzkoako zerbitzuetan ikusten da okupatutako 100 oheko 167,5 erizain daudela lanean. Bizkaiko zerbitzuetan, ordea, 100 oheko 241,6 erizain daude eta Araban, aldiz, 239,5 erizain (38).

Lan karga handia izateak, zerbitzuaren kalitatean zuzenki eragiten du. Izan ere, arrisku handiagoak daude arazo fisiko, psikologiko eta emozionalak izateko, besteak beste, memoria arazoak, buruko mina, logura, nekea, bizkarreko mina, depresioa, antsietatea, suminkortasuna eta akatsak areagotzea ekarri ditzake. Gainera, karga handia izatean, osasun profesionalak paziente bakoitzari denbora gutxiago eskaintzen diote, arriskuak handituz (20,39).

1.5. XEDE TALDEA

Zainketa aringarriak jasotzen dituzten paziente zein familiak eskubidea dute zainketa hauek jasotzeko eta atentzio integrala izateko eta horretarako erizainen kode deontologikoaren barnean erizainen formakuntzaren obligazioa dago (17,28,40).

Zerbitzu guztietan zainketak ematean komunikazio eraginkorra sustatzeko beharra ikusi den arren, ospitaleetan lan egiten duten erizainetan erizain gutxiagok formakuntza bat jaso dutela ikusi da (13,14). Beraz, nahiz eta zainketa aringarriak eman behar dituzten erizain guztientzat gomendagarria izan, ospitaleetan behar gehiago dagoela ikusirik, zainketa hauek ematen dituzten ospitaleetako erizainetan zentratzea interesgarria izango litzateke.

Eremua aukeratzeko, Gipuzkoan zainketa espezifikoko hauek emateko ospitale bakarra dagoela kontutan hartu behar da. Osakidetzako adierazleak begiratu, ikusten da Gipuzkoan 100.000 biztanleko ohe gehien dauden arren, egestura aldetik erizain gutxiago daudela eta beraz, lan karga handiagoa dagoela beste probintziekin konparatuz. (38,41).

Bestalde, Osakidetzako 2023-2027ko plan estrategikoan beharrezkoa ikusten dute osasun profesionalak zainketa aringarrien inguruan eta bereziki komunikazioaren inguruan formatzea kalitatezko zerbitzu bat eman ahal izateko (17). Beraz, xede taldea zainketa aringarriak jaso behar dituen pazienteen artatzen duen ospitalizazio eremu arruntera mugatzea erabaki da.

2. HELBURUAK

- **Helburu nagusia:** Ospitale eremuko erizainek zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteen aurrean komunikazio gaitasunak trebatzeko osasun hezkuntza programa baten diseinua garatzea.
- **Bigarren mailako helburuak:**
 - Zainketa aringarriak ematen dituzten erizainen komunikazioaren garrantzia justifikatzea.
 - Xede-taldea eta bere ezaugarriak zehaztea.
 - Xede-taldeak lortu beharreko helburuak formulatzea.
 - Programak izango dituen hezkuntza edukiak identifikatzea.
 - Estrategia metodologikoak erabiltzea.
 - Programa aurrera eramateko erabiliko diren antolakuntza-baliabide, giza-baliabide eta baliabide materialak finkatzea.
 - Lortu nahi diren emaitzen, prozesuen eta egitura eta baliabideen ebaluazioa gauzatzea.

3. METODOLOGIA

Osasun hezkuntza programaren helburuei erantzuna emateko, bilaketa 2023ko azken hiruhilekoan eta 2024ko lehen hiruhilekoan egin da. Aurretik aipatutako bilaketa bibliografikoa egiteko, alde batetik, datu baseei dagokienez, hiru informazio iturri nagusi erabili dira: *Pubmed*, *Dialnet* eta *Scielo*. Bestalde, testu osoa lortu ahal izateko Google Scholar eta Euskal Herriko Unibertsitateko bibliotekaren katalogoa erabili dira.

PIO egituradun bilaketa bibliografikoa egiteko, deskriptoreak eta hitz gakoak aukeratu dira DeCS eta MeSH-en bitartez (*1.eranskina*).

Ondoren, hainbat deskriptore eta hitz gako konbinatu dira “AND” operadore boolearrekin eta horrela hainbat bilaketa kate sortu dira (*2.eranskina*). Segidan, bilaketa kopurua murrizteko eta dokumentu eguneratuenak aukeratzeko iragazki batean mugatu da: azken 10 urteetan argitaratutako artikulua izatean, hain zuzen ere. Hala ere, hainbat kasutan

pentsamendu kritikoa erabiliz, interesgarriak diren artikulua gehitzeko aurreko irizpidea malgutu da.

Eduki teorikoak garatzeko hainbat liburu erabili dira: alde batetik, Julia Balzer-en “Comunicación en enfermería” liburua; bestetik, Ann Marriner-en “Modelos y teorías de enfermería” liburua eta azkenik, Christopher Germer-en “Cuaderno de trabajo de mindfulness y autocompasión” liburua.

Bestalde, beste hainbat informazio-iturri ere erabili dira; horien artean: Boletín Oficial del Estado-ko (BOE) legeak adierazten duten informazioa, OME-k zainketa aringarrien inguruan duen informazioa eta SECPAL-eko hainbat albiste zein gida.

Gainera, lanaren orientazioan laguntzeko, Donostiako Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) paziente onkologikoaren kudeaketarako unitateko erizain gainbegiratzailarekin hizketaldia lortu da ospitale eremuko beharra gertuagotik aztertuz.

Horrez gain, OHEZ programa hau garatu eta egitura egokia bermatzeko, “Metodos educativos en Salud” Nafarroako gidaliburua eta Osasun Ministerioko “Orientaciones didacticas para la acción comunitaria” txostena erabili dira beste zenbait artikuluren laguntzarekin batera.

4. PLANGINTZA

4.1. XEDE-TALDEAREN EZAUGARRIAK ETA HAUEN EZAGUTZAK, JARRERAK ETA GAITASUNEN IDENTIFIKAZIOA

Xede taldea ospitale eremuan zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteekin lan egiten duten erizainek osatuko dute. OHEZ programa dinamikoa izateko 20 pertsonako taldera mugatuko da eta programan parte hartzeko lehentasuna zainketa aringarrien inguruan formakuntzarik jaso ez dutenek izango dute. Horregatik, galdetegi bat pasako zaie (*3. eranskina*) ezagutza, jarrera eta gaitasunak zeintzuk diren jakiteko. Bestalde, 20 baino gehiago izanez gero, kontutan hartuko da lana zein zerbitzutan egin duten eta lanean zenbat urte doazen.

Talde diana lortzeko, Donostiako ESIko irakaskuntza arloko arduradunarekin harremanetan jarriko da osasun hezkuntza proposatu eta ESIn zabaltzeko (*4. eranskina*).

4.2. HELBURUEN FORMULAZIOA

4.2.1. XEDE TALDEAK LORTU BEHARREKO HELBURU PEDAGOGIKOAK

Helburu nagusia: Donostia Unibertsitate Ospitaleko (DUO) erizainek zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteen aurrean komunikazio gaitasunak bereganatzea.

Bigarren mailako helburuak: Donostia Unibertsitate Ospitaleko erizainek lortuko dute:

- *1.Helburua:* Komunikazio eta erlazio estiloak besteengan eta norberarengan adieraztea.
- *2.Helburua:* Komunikazio eraginkorra eta ez eraginkorraren ezaugarriak identifikatzea.
- *3.Helburua:* Zainketa aringarrietako pazientearen adaptazio faseak identifikatzea.
- *4.Helburua:* Paziente, familia zein erizainaren behar, kezka eta zalantzei erantzuten jakitea Ruland eta Mooreren kontzeptu nagusietan oinarrituz (min gabezia, ongizatea, duintasuna eta errespetua, bakean egotea eta hurbiltasuna).
- *5.Helburua:* Doluaren maneia eta emozio zailak kudeatzen jakitea paziente, familia eta norberaren aurrean.

4.3. JARDUEREN PROGRAMAZIOA

Hezkuntza edukiak ikasketa bat lortzeko estrategiak dituztenak izan behar dira; hau da, pertsonak bere esperientziatik, bizitakoagatik eta ezagutzagatik ikasiko ditu guzti hauek moldatuz (43).

Programa honetan osasun agentea erizaina izango da. Egiturari dagokionez, diseinatutako programa lau saioetan banatuko da (*1.Taula*). Taldea 20 pertsonen osatuko da, lehentasuna zainketa aringarrien inguruan formakuntzarik jaso ez dutenek izanez. Jarduera batzuk talde txikietan eta ondoren talde handietan burutu arren, bakarka egingo direnak ere badaude, autonomia eta gogoeta kritikoa bultzatzeko asmoz.

Saioak astero egitea proposatuko da, edukien inguruan hausnartzeko denbora izateko. Gainera, taldearentzat atsegina izan eta saioen eraginkortasuna handitzeko, beharrezkoa ikusten dutenean atsedena egiteko eskatzea proposatuko zaie. Jarraian, batetik, saioak banan-banan azaldu eta bestetik, programaren laburpena osatu da (*1,2,3,4,5. taulak*).

1.Taula: OHEZ programaren kronograma, lekua, edukia, osasun agentea eta iraupena.

EGUNA	LEKUA	SAIOA ETA GAIA	OSASUN AGENTEA	IRAUPENA
1.astea	DUOko aretoan	1.saioa: Komunikazio eta erlazio estiloak aztertzea, asertibotasunarekin konparatuz.	Erizaina	3 ordu
2.astea	DUOko aretoan	2.saioa: Komunikazio eraginkor eta ez eraginkorrak bereiztea.	Erizaina	3 ordu
3.astea	DUOko aretoan	3.saioa: Zainketa aringarriak behar dituztenen adaptazio faseak identifikatu eta paziente, familia eta erizainaren beharretara egokitzen jakitea.	Erizaina	3 ordu
4.astea	DUOko aretoan	4.saioa: Dolua zein emozio zailak bideratzea.	Erizaina	3 ordu

2.Taula: OHEZ programaren 1.saioa:

HELBURUA	TEKNIKAK	JARDUERA	IRAUPENA	BALIABIDEA
Komunikazio eta erlazio estiloak aztertzea	Elkartze teknika	OHEZ programa, osasun-agenteak eta saioen kronograma aurkeztuko da.	5minutu	Ordenagailua, proiektorea
	Elkartze teknika: hariaren jokoa	Taldekide bat bere izena esanez eta parte hartzearen arrazoia eta lana non egiten duen azalduz aurkeztuko da. Beste bati haria pasa eta taldekide bakoitzak haria lortu arte jolastuko da.	10 minutu	Haria
	Elkartze-teknika: Bikotekidea bilatu	Bakoitzari esaldi baten zatia entregatuko zaio. Honela, esaldia osatzeko bakoitzaren bikotea aurkitzen saiatuko da (<i>5.1.eranskina</i>).	10 minutu	Orriak
	Ikertze teknika: Galdetegia	Bakoitzaren komunikazio estiloa zein den aztertzeko 12 galderako galdetegia pasako da (<i>5.1.eranskina</i>).	15 minutu	Mugikorra
	Azalpen teknika: Bideoa diskusioarekin	Komunikazio estilo ezberdinak zeintzuk diren lantzeko “Nurse Jackie” telesailaren 1.kapitulua jarriko da. Ikusi ostean, erizainak pertsonaia ezberdinekin duen estiloa adibide baten bidez desberdinduko da. Gero, talde handian komentatu eta estiloen ezaugarriak zehaztuko dira (<i>5.1.eranskina</i>).	50 minutu	Ordenagailua, proiektorea

		ATSEDENA	10 minutu	
Azalpen teknika: Azalpena diskusioarekin	Power point baten bidez erlazio mota ezberdinen ezaugarriak azalduko dira eta talde txikietan estilo bakoitzaren ezaugarrien laburpena osatzeko taula bat beteko da. Bakarka, berriz, bakoitzaren estiloaren inguruan hausnartzeko, hainbat galdera proposatuko dira. Bukatzeko, estilo bakoitzarentzako adibide bat planteatu eta talde handian komentatuko da (<i>5.1.eranskina</i>).		45 minutu	Ordenagailua, proiektorea, papera, boligrafoa.
Analisi teknika: Kasua	Talde txikitan banatu eta erlazio mota guztien erantzunak proposatuko dira kasu batean oinarrituz. Gero, talde handian komentatuko da (<i>5.1.eranskina</i>).		20 minutu	Papera, boligrafoa.
Sormen-teknika: Munduko kafea	Hamaiketako bat prestatu eta talde txikitan banatuko dira. Aipatutako komunikazio zein erlazio estiloak kontutan izanik, bakoitzaren esperientziarekin alderatuko da. Bukatzean, bozeramaileak talde handiari bueltatuko dio komentatutakoa.		15 minutu	Kafea, edalontziak, pastak
Ixte teknika	Saioaren zein bakoitzaren alde positiboak eta hobetzekoak egunerokoan idatziko dira.		5 minutu	Papera, boligrafoa

3.Taula: OHEZ programaren 2.saioa:

HELBURUA	TEKNIKAK	JARDUERA	IRAUPENA	BALIABIDEA
Komunikazio eraginkor eta ez eraginkorrak bereiztea	Elkartze teknika	Saio honetako helburuak zeintzuk diren zehaztuko da.	5minutu	Ordenagailua, proiektorea
	Ikertze teknika: Tormenta de ideas	Taldekideei ondorengo galdera proposatuko zaie: Zure unitatean zaudenean, zerk eragiten dizu bizitzako azken fasean dagoen paziente/familiarekin komunikatzean? Erantzuna hitz baten bidez adieraztea eskatuko zaie, bukaeran hitzen laburpena eginez.	10 minutu	Papera, boligrafoa
	Ikertze teknika: Fotopalabra	Talde txikietan banatu eta lan eremu ezberdinetan komunikazioan zerk eragin dezakeen seinalatuko da. Gero, talde handian laburpena osatuko da (<i>5.2.eranskina</i>).	10 minutu	Irudiak, boligrafoa
	Ikertze teknika: Rejilla	Taldekideek norberarengan zein lankideengan komunikazio zailtasunak ekarri dituzten ondorioak idatziko dituzte adibideen bitartez. Bakoitzaren esperientzia komentatu eta taldean informazioa bilduko da.	15 minutu	Papera, boligrafoa

	Analisi teknika: Kasua	Zainketa aringarriak ematen dituen erizain baten kasua irakurriko da komunikazio gaitasun urriaren ondorioak zehazteko eta ondoren bakarka galderak erantzungo dira. Gero, talde handian komentatuko da (5.2.eranskina).	20 minutu	Papera, boligrafoa.
	Azalpen teknika: azalpena diskusioarekin	Power point bitartez, komunikazio eraginkor ezak ekarri ditzakeen albo ondorioak saihesteko teknika ezberdinak azalduko dira. Gero, 3 teknika probatuko dira eta bakoitzak sentitu duena partekatuko da (5.2.eranskina).	30 minutu	Ordenagailua, proiektorea
		ATSEDENA	5 minutu	
	Ikertze teknika: Barometroen baloreak	Entzuterako orduan eragin dezaketen elementuak zehazteko taldekideak borobil bat osatuko dute. Hitz desberdinak aipatu eta beraien ustetan eragina izango balute borobilaren barruan sartu beharko lirateke arrazoiak emanaz (5.2.eranskina).	10 minutu	Papera, boligrafoa
	Azalpen teknika: Bideoa diskusioarekin	Entzute aktiboaren garrantzia azpimarratzeko bideo bat ikusiko da. Entzutean eragiten duten faktoreak eta modu egoki eta desegokiak zeintzuk diren ikusteko “Amar la vida” pelikulako zatiak ikusi eta hainbat galdera	30 minutu	Ordenagailua, proiektorea, papera, boligrafoa.

		erantzungo dira. Ondoren, hausnartzeko bakarka kasu bat landuko da (<i>5.2.eranskina</i>).		
	Gaitasunezko teknika: Role playinga	Modu anonimoan entzute aktiboa mantentzen ez den kasu errealak idatzi eta binaka egoera horretan zein jarrera izango luketen planteatuko da. Gero, hobekuntzak proposatuko dira talde handian.	45 minutu	Papera, boligrafoa.
	Ixte teknika	Saioaren zein bakoitzaren alde positiboak eta hobetzekoak egunerokoan idatziko dira.	5 minutu	Papera, boligrafoa

4.Taula: OHEZ programaren 3.saioa:

HELBURUA	TEKNIKAK	JARDUERA	IRAUPENA	BALIABIDEA
Zainketa aringarriak behar dituztenen adaptazio faseak jakitea eta paziente, familia eta erizainaren beharretara egokitzen jakitea	Elkartze teknika	Saio honetako helburuak zeintzuk diren zehaztuko da.	5minutu	Ordenagailua, proiektorea
	Azalpen teknika: azalpena diskusioarekin	Power Point baten laguntzaz, erizainek zainketa aringarriak jasotzen dituztenen adaptazio faseen inguruan eta hauek dituzten beharrak zeintzuk diren azalduko dituzte Ruland eta Mooreren teoriaren oinarriko kontzeptuak kontutan hartuz. Ondoren, gaiaren inguruan eztabaidatuko dute libreki; zalantzak, komentarioak eta pentsamenduak planteatuz (5.3.eranskina).	30 minutu	Ordenagailua, proiektorea, papera, boligrafoa
	Analisi teknika: Kasua	Bi taldetan banatuko dira: Talde bati kasu ezberdinak planteatuko zaizkie eta bakoitzak pazientea zein fasetan dagoen eta zein behar dituen azalduko ditu. Beste taldeari zainketa aringarriekin zerikusia duten hainbat kasu aurkeztuko zaizkio estilo asertiboa (errespetua eta enpatia) lantzeko. Gero, hainbat galderei erantzun beharko die. Bukatzean, guztia amankomunean jarri eta hausnarketa egingo da (5.3.eranskina).	55 minutu	Papera, boligrafoa
			ATSEDENA	5minutu

Ikertze teknika: phillips 5/5	5 pertonez osatutako talde txikitan banatu eta 5 minutuz errukiaren inguruan duten ikuspuntua adieraziko dute. Ordezkariak beraien ekarpena talde handiari helaraziko dio eta bideo bat ikusiko da (5.3.eranskina).	10 minutu	Ordenagailua, proiektorea, papera, boligrafoa
Azalpen teknika: Bideoa diskusioarekin	Pazientearen, familiaren eta erizainaren beharrak lantzeko “Nurse Jackie”-ren 3.kapitulua jarriko da. Ondoren, taldean galderei erantzungo zaie (5.3.eranskina).	30minutu	Ordenagailua, proiektorea, papera, boligrafoa
Gaitasunezko teknika: Role playinga	Pazientearen, familiaren eta erizainaren beharrak zeintzuk diren identifikatzeko aurreko kasuak erabiliko dira. 5eko talde txikitan banatuko dira eta kasu ezberdinen bidez, bakoitzean edukiko luketen jarrera proposatuko dute. Gero, talde handian jarrera eta edukitako erantzunei hobekuntzak proposatuko zaizkie (5.3.eranskina).	45 minutu	Ordenagailua, proiektorea
Ixte teknika	Saioaren zein bakoitzaren alde positiboak eta hobetzekoak egunerokoan idatziko dira.	5 minutu	Papera, boligrafoa

5.Taula: OHEZ programaren 4.saioa:

HELBURUA	TEKNIKAK	JARDUERA	IRAUPENA	BALIABIDEA
Dolua zein emozio zailak bideratzea	Elkartze-teknika	Saio honetako helburuak zeintzuk diren zehaztuko da.	5minutu	Ordenagailua, proiektorea
	Azalpen teknika: azalpena eta bideoa diskusioarekin	Power point baten bidez, albiste txarrak nola eman eta emozio zailen kudeaketaren azalpena emango da. Dolua lantzeko, bideo bat ikusiko da. Gero, bakoitzak erabiltzen dituen pausuekin zein esperientziarekin alderatuko du (5.4.eranskina).	1 ordu	Ordenagailua, proiektorea
	Ikertze teknika: Rejilla	Doluaren inguruan izan dituzten esperientziak kontatu eta amankomunean jarriko dira pazienteen galdera ohikoenak aztertzeko, elkarrizketak nondik bideratzen diren jakiteko eta nola erantzun jakiteko.	25 minutu	Papera, boligrafoa
		ATSEDENA	5 minutu	
	Gaitasunezko teknika:	Taldea hirutan banatuko da: talde batean, doluaren inguruko elkarrizketa ezberdinak emango dira zeinetan erantzuna modu asertibo batera aldatzea proposatuko den. Beste taldean, elkarrizketaren ordena eta analisisa egitea	1ordua	Papera, boligrafoa

	Simulazio operatiboa	planteatuko da. Azken taldean, isiltasunaren bidez erantzundako elkarrizketei erantzun posibleak pentsatzen saiatuko da. Bukatzean, talde handian komentatuko da (5.4.eranskina).		
	Ixte teknika: Eremu katartikoa	Hiru taldetan banatu eta talde bakoitzak galdera bati erantzungo dio: Nola iritsi nintzen? Nola sentitu naiz? Nola bukatzen dut? Gero, talde handian partekatuko da. Gainera, OHEZ programa ebaluatzeko galdetegiak pasako dira (7.1.,7.2.,8.1. eta 8.2.eranskinak).	30min	Papera, boligrafoa
	Azalpen teknika: Pelikula eta erreflexioak	Saio amaieran erreflexio batzuk, poema bat eta “Martes con mi viejo profesor” pelikula ikustea gomendatuko da. Honela, aurretik egindako lan guztia laburbilduko da pelikula aztertuz (5.4.eranskina).	1 ordu eta 30 minutu	Ordenagailua

4.4. EBALUAZIOAREN PLANGINTZA

Ebaluazioa, informazioa biltzen duen prozesua da zeinetan esku-hartze baten eragindako aldaketak ezagutzeko erreferentziazko estandar edo desiragarritasun ereduekin behatzen dena neurtzen edo alderatzen den (43).

Ebaluazioan guztira 3 atal nagusi ebaluatzen dira: alde batetik, proiektuaren emaitzen ebaluazioa egongo litzateke zeinetan hezitzaileek soilik ebaluatuko duten. Bestalde, proiektuaren prozesuaren ebaluazioa eta egitura eta baliabideen ebaluazioa gauzatuko da programako kide guztien bitartez (43).

Hau honela izanik, ebaluazioa etengabekoa izango da programa osoan zehar, hau da, hezkuntza saio bakoitzaren ostean ebaluazio bat egingo da. Horrez gain, saio guztiak amaitzean ere beste ebaluazio bat burutuko da prozesu osoa ebaluatuko duena (43).

4.4.1. PROIEKTUAREN EMAITZEN EBALUAZIOA

Emaitzen ebaluazioa, proiektuaren helburuen lorpen-maila neurtzeko erabiltzen da. Saioen hasieran planteatutako helburuak bete diren jakiteko balio du, baina honetarako, beharrezkoa da helburuak ongi definituak izatea (43).

Programa honetan, saio bakoitza amaitzean partaide bakoitzak saioren inguruko iritzia eta emozioak zeintzuk izan diren idatzi eta partekatuko ditu nahi izanez gero, hobekuntzak lortzeko asmoz. Gainera, osasun agenteek behaketa egituratuaren bitartez zein errubrika bat betez ebaluatuko dute taldearen dinamika, aukeratutako edukiak zein teknikak (6.1.Eranskina). Horrez gain, osasun agenteak egindako ariketa, galdetegi eta lan guztien datuak jasoko ditu hauek aztertzeko asmoz. Bestalde, gaitasunezko teknika lortzeko role playing-a egiterako orduan, errubrika zehatz bat bete beharko da (6.2.eranskina). Saio bakoitzean erabilitako ebaluazio metodoen laburpena eskura edukiko da (6.3.eranskina) (44).

4.4.2. PROIEKTUAREN PROZESUAREN EBALUAZIOA

Prozesuaren ebaluazioaren helburua egindako jarduerak neurtzea da. Ebaluazio honen bidez profesionala, ekintzen teknikaren kalitatea, programatutako eta egindako jardueren kopurua, zerbitzuaren antolaketa, profesionalaren eta erabiltzailearen artean ezarritako harremana eta hartutako neurrien partaidetza zein onarpen maila ebaluatzen da (43).

Alde batetik, hurrengo saiorako hobekuntzak planteatzeko, saio bakoitzaren amaieran norberaren iritzia, esperientzia eta proposamenak zeintzuk izan diren kontutan hartuko dira eguneroko batean hausnarketa bat egiteko eskatuz.

Bestalde, saio guztien amaieran edukien analisia egiteko eta izandako zailtasunak zeintzuk diren aztertzeke, hezitzaile zein hezituek proiektuaren prozesuaren ebaluazioa gauzatuko dute galdetegi bana betez (7.1. eta 7.2. eranskinak).

4.4.3. PROIEKTUAREN EGITURA ETA BALIABIDEEN EBALUAZIOA

Programaren egitura eta baliabideak ebaluatuz, kalitatea, kantitatea eta giza baliabideen, errekurso materialen zein finantza-baliabideen eskuragarritasunarekin zerikusia duten galderei erantzuna aurkitzen zaie. Ebaluazio mota honekin planteatutako galderak instalazioen, materialen zein taldearen kalitatearekin, antolakuntzaren ezaugarriekin, profesionalen zein zerbitzuen eskuragarritasunarekin eta aurrekontuarekin lotura dute (43).

Ondorioz, osasun programako partaide guztiek saioetan erabilitako egitura zein baliabideak ebaluatuko dituzte. Honela, saioen lekua, iraupena, materiala, ordutegia, osasun agenteak eta edukiak nolakoak izan diren aztertuko da. Hau lortzeko, saio guztiak amaitzean galdetegi bana pasatuko zaie hezitzaile zein hezituei (8.1. eta 8.2. eranskinak).

5. EKARPEN PERTSONALA

Lanaren hasieran ikusi den moduan, zainketa aringarriak jasotzeko irizpideak dituzten paziente guztiek ez dute aukera izaten unitate espezifikoetan artatuak izateko. Hori dela eta, tarteka, ospitalizazio unitate desberdinetara bideratzen dira zainketa mota hauek emateko.

Zainketa aringarriak ematen dituzten unitate espezifikoetan formakuntza gehiago egoten den arren, paziente mota hau ospitaleko beste zerbitzu arrunten batera iristen denean hutsuneak nabarmentzen dira eta oraindik ere aurre egin behar zaio egoerari. Izan ere, graduan zehar izandako esperientziaren pertzepzioetik abiatuta, hainbat kasutan formakuntza falta zein komunikatzeko gaitasun gabeziarako joera nabarmentzen direla ikusi da. Gainera, Donostiako paziente onkologikoaren kudeaketarako unitateko erizain gainbegiratzailerekin hutsune honen inguruan hitz egin ondoren, formakuntza honekiko interesa adierazi du.

Zainketa aringarriak behar dituzten pazienteen aurrean egotean, garrantzitsua da babes emozionala ematea eta etapa honetan azaltzen diren zalantzak, beharrak, nahiak eta emozioak kudeatzen jakitea, kalitatezko bizitza bermatuz. Horretarako, beharrezkoa da bertan egoteko, entzuteko, babesteko eta laguntzeko gaitasuna izatea; hau da, arlo humanizatua nagusitzea, komunikazio gaitasunak landuz.

Osakidetzako lerro estrategikoen barne hartzen den atalari garrantzia eman eta gaiak duen pisua gailentzeko sortu da ospitale eremuan zainketa aringarriak eskaintzen dituzten erizainen komunikazio gaitasunak trebatzeko osasun hezkuntza programa hau. Izan ere, gaur egun agertzen den behar bati aurre egiteko programa da.

Hori lortzeko, beste egoera batzuetan erabilia izan den eta zainketa hauei egokitzen zaien tarteko teoria bat erabili da zeinekin osasun hezkuntzarako helburu pedagogikoak planteatu diren. Hau honela, programa honen bidez profesionalak komunikazio arloan duen jarrera ezagutu eta zainketa aringarriak behar dituztenetan aurkitzen diren egoera batzuei aurre egiteko ziurtasuna lortzen da. Honela, pazienteari duintasuna bermatzen ikasiko da, zainketak kalitatezko bilakatuz.

Begiak irekiz, bakoitzaren beharrak ulertu, etorkizunean sortu daitezkeen konplikazioak saihestu eta behar bezalako erlazioak sortuz, zainketa aringarriak behar dituzten pazienteek merezi dutena emateko ordua iritsi da.

6. BIBLIOGRAFIA

1. Organización Mundial de la Salud [Internet]. OMS; 2020 [kontsulta data: 2023/11/13]. Cuidados paliativos. Erabilgarri: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/palliative-care>
2. Arrunda Lima M, Manchola-Castillo C. Bioética, cuidados paliativos y liberación: una contribución al “buen morir”. Re. Bioe. [Internet]. 2021 [Kontsulta data: 2023/11/30]; 29 (2): 268-78. Erabilgarri: <https://doi.org/10.1590/1983-80422021292464>
3. Ruiz Gros S. Fragilidad de la condición humana [Internet]. Pontifica Universidad Católica del Ecuador; 2020 [Kontsulta data: 2023/12/ 23]. Erabilgarri: https://edipuce.edu.ec/wp-content/uploads/2020/03/Fragilidad_de_la_condicion_humana.pdf
4. Raile Alligood M. Modelos y teorías en enfermería. 9.edizioa. Barcelona: Elsevier; 2018.
5. Santamaría Campos CC, Carrero Planes V, Navarro Sanz R. Sentido de dignidad al final de la vida: una aproximación empírica. Med Paliat [Internet]. 2014 [Kontsulta data: 2023/12/22]; 21 (4): 141-152. Erabilgarri: <https://www.elsevier.es/es-revista-medicina-paliativa-337-pdf-S1134248X13000566>
6. Rojas García C, Rincón Ascencio EE, Sánchez Rúa M, Giraldo Castro M, Bossa Ruiz ML, Quintero Trejos MJ, et al. Manual básico de enfermería paliativa [Internet]. 1.edizioa. Sánchez-Cárdenas MA, Rojas García C. Colombia: Universidad El Bosque; 2022 [Kontsulta data:2023/11/30]. Erabilgarri: <https://cuidadospaliativos.org/uploads/2022/6/Manual-Basico-de-enfermeria-paliativa.pdf>
7. Sociedad Vasca de Cuidados Paliativos. Guía de recursos sanitarios y sociales en la fase final de la vida en Gipuzkoa [Internet]. 1.edizioa. Donostia: Sov. Pal; 2003 [Kontsulta data: 2023/12/23]. Erabilgarri: <https://derechoamorar.org/wp-content/uploads/2018/07/guiacuidadospaliativosguipuzcoa.pdf>

8. Sociedad Española de Cuidados Paliativos. Guía de Cuidados Paliativos [Internet]. 2014 [Kontsulta data: 2023/11/28]. Erabilgarri: <https://cmvinalo.webs.ull.es/docencia/Posgrado/8-CANCER%20Y%20CUIDADOS-PALIATIVOS/guiacp.pdf>
9. Balzer Riley J. Comunicación en enfermería. 9.edizioa. Barcelona: Elsevier; 2021.
10. Garrido de Andrade C, Pinto Costa IC, Serpa de Souza Batista P, Pereira de Melo Alves AM, Saraiva Costa BH, Santos Nassif M, et al. Cuidados paliativos y comunicación: una reflexión a la luz de la teoría del final pacífico de la vida. *Cogitare Enferm.* [Internet]. 2022 [Kontsulta data: 2023/11/28]; 27. Erabilgarri: <http://dx.doi.org/10.5380/ce.v27i0.80917>
11. Sociedad Española de Cuidados Paliativos [Internet]. Madrid: 2023 [Kontsulta data: 2023/11/13]. “En España existe un déficit claro de recursos en cuidados paliativos”; [6 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.secpal.org/en-espana-existe-un-deficit-claro-de-recursos-en-cuidados-paliativos/>
12. Fernandez Martinez de Mandojana, M. La búsqueda de la excelencia en la Atención Paliativa en una OSI. *International Journal of Integrated Care* [Internet]. 2019 [Kontsulta data: 2023/11/15]; 19 (1): 1-8. Erabilgarri: <https://doi.org/10.5334/ijic.s3114>
13. Jiménez Cortés R, Ramos Sánchez A. Conocimientos en cuidados paliativos entre las enfermeras de un hospital de segundo nivel en España. *Enferm Oncol* [Internet]. 2022 [Kontsulta data: 2023/11/15]; 24 (1): 50-74. Erabilgarri: <https://revista.proeditio.com/enfermeriaoncolologica/article/view/3805/5337> .
